PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA, ERDI-ATOIAREN GAINEKO SUKALDE-TABERNA MUGIKORREKO MODULU FUNTZIONALA HORNITZEKO, HAZI FUNDAZIOAREN "ARDOA BASQUE WINE OFFICE" BULEGOARI LOTUTAKO SUSTAPEN EKINTZAK GARATZEKO, HORNIDURA TARTEAN DIRELA MODULUA ZAINTZEKO, GARRAIATZEKO, MUNTATZEKO, MANTENTZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUAK.

1. AGIRIAREN XEDEA ETA IRISMENA

Agiri honen helburua da erdi-atoiaren gaineko sukalde-taberna mugikorreko modulu funtzionala hornitzeko agindu eta zehaztapen teknikoak definitzea, HAZI Fundazioaren "Ardoa Basque Wine Office" bulegoari lotutako sustapen ekintzak garatzeko, tartean direla modulua zaintzeko, garraiatzeko, muntatzeko, garbitzeko, mantentzeko eta desmuntatzeko zerbitzuak ere.

Agiri honek eta Baldintza Administratiboen Agiriak kontratuaren esleipena, edukia eta ondorioak arautzen dituzte, era berean, azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera (aurrerantzean, SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora transferitzen dituena. Baldintza horiek prestazio osoari aplikatuko zaizkio eta HAZI Fundazioko teknikariek gainbegiratu eta ebaluatuko dituzte. Lizitatzaileak proposamena aurkeztuz gero, agiri honetako eta preskripzio administratiboen agiriko klausula guztiak baldintzarik gabe onartuko ditu, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

2. HORNIDURAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Kontratuaren xedea da atoiaren gaineko sukalde-taberna mugikorreko modulu funtzionala hornitzea, "Ardoa Basque Wine Office" bulegoari eta, oro har, edarien euskal sektoreari lotuta EAEko eremuan nahiz EAEtik kanpo gauzatuko diren sustapen ekintzak garatzeko, herritarrek sektore hori ezagutzea sustatzeko, produktu horien kontsumoaz arduratzen den kultura bat sortzeko, sektorearen eta sektore barruko produktuetako bakoitzaren bikaintasun irudia emateko, eta edarien euskal sektoreak ekitaldi, azoka, jardunaldi, topaketa eta antzekoetan egiten dituen sustapen lanak babesteko.

Edarien oso sektore heldua izanik, kasu askotan marka indibidualek marka kolektiboak gainditzen baitituzte, eta kontuan izanda Arabako Errioxako upategien egitura, Txakolinaren hiru JDBak, Euskal Sagardoaren JDBa eta Euskadiko garagardo artisauen multzoa, aipatutako sektorearen zatirik handiena osatzen dutenak, argi dago egoki posizionatutako eta aitortutako marka kolektibo baten/batzuen beharra dagoela, estatuan zein nazioartean gure edarien kalitatea eta ospea bereizgarriak izan daitezen. Beharrezkoa da marka kolektibo indartsuak izatea, marka lehiakideetatik bereiziak eta marka indibidualen balioa handitzeko aukera ematen dutenak, eta, horretarako, HAZI Fundazioaren "Ardoa Basque Wine Office" bulegoak Basque Wine sustapen marka garatu du.

Nazioarteko merkatuetan ziurgabetasuna egonda, gomendagarria da gure marka kolektiboen presentzia indartzea barne merkatuetan. Horretarako, beharrezkoa litzateke presentzia horrekin batera ekintza komertzialak egitea eta markei laguntza espezifikoa ematea, tokiko merkatuak mantentzeko, indartzeko eta zabaltzeko egiten dituzten ekintzetan, bi kasuetan banaketaren sektorearen, Horeca kanalaren eta kontsumitzaileen konplizitatea bilatuta.

A priori, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako merkatuak dira, Madrileko eta Bartzelonako presentzia baztertu gabe, landu beharreko helburu nagusiak; beraz, planteatzen da sukalde eta taberna batera izan daitekeen eta merkatu horietan dugun presentzia indartzeko estrategia zehatzak garatzen utziko digun elementu mugikor bat beharko dugula, esaterako, Euskal Ardoak Sustatzeko Kanpainak ezarri ahal izateko, jende asko biltzen duten lekuetan (azokak, kontzertuak, ekitaldiak, kirol jarduerak, etab.) publizitate eta sustapen jarduerak eginda eta euskal gastronomiarekin batera eskaintza eginez haren konplizitatea ere bilatuta.

Horrez gain, kontratuaren barruan sartuko da elementua zaintzeko zerbitzua (hornitutako moduluaren zaintza eta mantentze lanak barne) eta elementua mugitzeko zerbitzua (hornitutako modulua garraiatzea, muntatzea, garbitzea eta desmuntatzea barne) ematea, urtebeteko epean, Hazi Fundazioaren “Ardoa Basque Wine Office” bulegoak eskatzen duenean eta harekin koordinatuta.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da moduluaren zaintza Hazi Fundazioak Arkautin (Granja Eredua, z/g, 01192 Arkauti, Araba) edo Abadiñon (Muntsaratz dorrea, Muntsaratz 17A, 48220 Abadiño) dituen egoitzetako batetik 50 Km edo distantzia txikiagoko erradioan ezartzea, hornituko den modulurako hornitze lanik, egokitzapenik, dekoraziorik, ekipamendurik edo beste edozein lan egiteko bertara joan behar duten Hazi Fundazioko langileek ondo iritsiko direla bermatzeko.

Gainera, beharrezkoa da modulua garraiatzeko, muntatzeko, garbitzeko, mantentzeko eta desmuntatzeko behar diren zerbitzuak aipatutako eremuan bereziki trebatuta dauden eta adituak diren pertsonek egitea, aditu horiek erantzuna berehala eta aurrez aurre ematea bermatzeko.

Mugikortasun zerbitzuari dagokionez, modulu funtzionala biltegiratzen den instalaziotik bere funtzioa garatuko duen lekura eramatea eta gero biltegiratze lekura bueltatzea izango da, baita modulua muntatu eta hedatzeko lanak, ondoren garbitzea eta funtzionatzeko behar dituen kontsumigarriak birjartzeko lanak ere. Zerbitzua egun berean eman daiteke edo muntatzen denetik desmuntatzen denera arte egun bat edo batzuk utzi ahal izango da, denbora tarte horretan gidari-muntatzailearen presentzia beharrezko ez dela jotzen bada; halere, gidari-muntatzailea erraz aurkitzeko moduan egon beharko da modulu funtzionalaren erabiltzaileentzat.

Era berean, HAZI Fundazioaren “Ardoa Basque Wine Office” bulegoarentzat ekimen hau berritzailea dela kontuan hartuta, beharrezkoa da sukalde-taberna mugikorreko zerbitzu horren ezaugarrien etengabeko balorazioa egitea, erakustaldi fase bat ahalbidetuko duen malgutasun nahikoa izan dadin, behar diren aldaketak egiteko, modulua edarien euskal sektorearen eta zerbitzuaren beraren eskakizunetara eta beharretara modu optimoan egokitu dadin.

3. APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

Sukalde-taberna mugikorraren modulu funtzionala erdi-atoia izan behar da. Ibilgailuen Araudi Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotako sailkapenaren arabera, unitate mugikorraren sailkapena “atoia eta erdi-atoia” izan behar da, eraikuntza irizpideen arabera.

Horretarako, halakotzat agertu beharko da Ibilgailuaren fitxa teknikoan. Nolanahi ere, unitate mugikorra jarduerarako homologatuta egongo da indarrean dagoen araudiaren arabera. Unitate mugikor horrek IATa eta dagozkion berrikuspenak izango ditu.

Era berean, bere diseinuan honako arau hauek osatzen duten higiene paketearen xedapenak kontuan hartu behar dira:

• 852/2004 Erregelamendua (EE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa,

elikagaien higieneari buruzkoa

• Eta jarduera behar bezala garatzeko behar diren beste edozein

4. MODULU FUNTZIONALAREN DESKRIBAPENA

4.1. Neurriak eta ahalmena

Sukalde-taberna mugikorreko modulu funtzionala erabat funtzionala izan beharko da planta mugikor gisa. Horretarako, modulua edukiontzi karrozatu batez osatuta egongo da, erdi-atoiaren gainean muntatuta, buru traktorearekin desplazatzeko. Atoiak ardatz 1 edo 2 edukiko ditu, eta esekidura pneumatikoa, eta kataforesi prozesuaren bidez pintatuta egongo da.

Atoiaren neurriak honako koadro honetan jasotzen direnak izango dira:

NEURRIAK (M) KANPOAN

Gehieneko LUZERA: 12,00 m

Gehieneko ZABALERA: 2,550 m

Gehieneko ALTUERA: 3,90 m

Gehieneko MMA pixua: 21.000 kg

Moduluak ahalbidetu behar du barruan edariak eta elikagaiak behar bezala biltegiratuta garraiatzeko; beraz, dagokion PMAren (baimendutako gehieneko pisua) arabera moduluaren beraren pisuaz gain gutxienez 4500 kg gehiago kargatzeko nahikoa ahalmena izan behar du.

4.2. Ezaugarriak eta banaketa

Sukalde-taberna mugikorreko modulu funtzionala prestatuta egon behar da lehen sektoreko eta elikagaien sektoreko produktuak ingurune itxietan edo aire librean egiten diren azoketan, ekintzetan, ekitaldietan eta abarretan zabaltzeko, eta hori kontuan hartuko da modulua egiteko irtenbideak hautatzeko.

Moduluak fabrikatu berria izan behar du, ekitaldietan jarduera eno-gastronomikoak garatzeko aukera eman behar du, eta azkar eta erraz muntatu eta desmuntatu behar da. Modu autonomoan lan egiteko diseinatuta eta eraikita egon beharko du (autonomia energetikoa edozein lekutan instalatzeko, autonomia ur garbia edukitzeko eta ur grisak eta beltzak biltzeko), baina elektrizitatea eta ura kanpotik eskuratu ahal izateko konexioak ere izango ditu. Ur sanitario hotz eta beroaren eta energia elektrikoaren (220 V) eta gas zerbitzuen barne banaketa izango da.


Instalazio elektrikoa kontrol koadroarekin eta makinetarako. Gune bakoitza argiztatzeko sistema, lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen dela ziurtatzeko.

Eraikuntza ezaugarrien deskribapena orientagarria da, osasun agintaritza eskudunak gaitzea ahalbidetuko duen azken diseinuaren arabera.

Gune guztien garbiketa eta desinfekzio lanak errazteko, barruko paramentuak erraz garbitu eta desinfektatzen diren materialez osatuta edo forratuta egon beharko dira. Moduluak zoru ez labainkorra izango du.

Moduluak itxura ona izan beharko du kanpotik, Ardoa Basque Wine Officek antolatutako ekitaldietan erabiltzen ohi den estetikarekin bat datorrena (egurra, kolore ilunak eta abar, adibideak ikusi)





Gutxienez honako espazio edo gune hauetan banatuta egon beharko da:

1. Sukalde bat, ekipamendu profesionalarekin.
    - Gutxienez 6 m2-ko azalera edukiko du, eta gutxienez 2,25 m-ko altuera
    - Elikagaiekin erabiltzeko diren eta garbitzen errazak diren materialez forratuta egongo da, eta sugar atzeratzailea emanda edukiko du.
2. Barra espazio bat, gutxienez lau metrokoa, jendea eroso iristeko modukoa.
    - 8 m2 izango du gutxienez
    - Altzairu herdoilgaitzezko barrak, gutxienez 4 metroko luzerakoak
    - Bezeroari zerbitzatzeko barra lurretik 1.360 mm-ko distantziara egongo da gehienez, eta zerbitzaria bezeroaren altuera berean edo gehienez 40 cm altuago egongo da.
3. Biltegiratze gunea eta makina gela
    - 4 m2 izango du gutxienez
    - Ur garbia, ur grisak eta ur beltzak biltegiratzeko deposituak kokatzeko lekuak.
    - Janaria eta edaria hornitzeko kutxak eta hainbat altzari garraiatzeko prest egongo da, ekitaldiaren arabera.
4. Komuna, konketarekin.
    - Gutxienez komun bat dagozkion elementu guztiekin, barruko langileek edo bezeroek erabiltzeko.
    - Komonak hutsean egindako xurgaketa sistema erabiliko du, ur gutxiago erabili, garbitasun handiagoa lortu eta inguruarekiko errespetu handiagoa lortze aldera, produktu kimikorik ez erabiltzean.

5. Ingurumena kudeatzeko gune bat izango du, moduluaren berezko jarduerak egitean sortzen diren elementuak birziklatzeko edukiontziak instalatzeko.
6. Euskarriak edo publizitatea (kartelak, pantailak, etab.) aldi baterako jartzeko prestatutako gainazalak
    - Kanpoaldean espazio bat izango du 75 hazbeteko telebista pantaila bat eta haren soinu sistema jartzeko
    - 75 hazbeteko telebista pantaila
7. Moduluak toldoak, aurrealdeak edo elementu zabalgarriak edukiko ditu, barraren inguruan gutxienez 30 m2-ko eremu estali bat sortu ahal izateko, jendea eguzkitik eta euritik babesteko.

4.3. Makinak eta ekipoak

Makina eta ekipo guztiak bateragarriak izango dira elkarren artean, unitate osoaren erabilera funtzionala ahalbidetzeko moduan. Instalatutako makinek eta ekipoek aplikatzekoa den indarreko araudia bete beharko dute, eta esleipendunaren ardura izango da, eta berarena bakarrik, dagozkion homologazio baimenak eta ziurtagiriak edo CE adostasunaren adierazpena lortzea. Esleipendunak indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Moduluak, gutxienez, makina eta ekipo hauek izango ditu, definitutako espazioen arabera.

1. Sukaldea
    - Lan egiteko mahaia, kubetarekin.
        - Neurriak: 1492x600x850 mm
    - Gastronorm hozteko mahai positiboa
        - Edukiera gordina: 274 L
        - Hozteko potentzia: 310 W
        - Neurriak: 1342x700x850 mm
    - FRY -TOPS plantxa
        - 9.25 KW-ko potentzia
        - Neurriak: 210 400x600x290 mm
    - Labea
        - 12 kw-ko potentzia
        - Neurriak: 210 898x868x846 mm
        - 6 gastronorm erretiluetarako edukiera
    - Mikrouhin labe profesionala
        - 1800 W-platerik gabe
        - Edukiera 30 litro
    - Sukaldea 2 erregailurekin
        - Potentzia guztira: 13,25 kW - Gasa.
        - Neurriak: 400x930x290 mm
    - Ke kanpaia
        - Hormako kanpaia, 4 iragazkikoa
        - Haizagailuaren potentzia, 0.59 kw
    - Harraska kubeta enpotratuarekin eta petoarekin
        - Neurriak: 1000 x 500 mm
    - Sukaldeko tresnak eta beste elikagai batzuk jartzeko apalak eta armairu herdoilgaitzak.

- Intsektuak desagerrarazteko sistema
- Ur beroko termoa, 40 litrokoa
- Eskuak garbitzeko txorrora, eskuz eragiteko ez dena, ur hotza eta beroa duena, eta urak nahasteko agintea ere duena. Xaboi banatzailea eta paper zapiak.

2. Barra
    - Harraska, kubeta enpotratuarekin eta koipeak bereizteko sistema duen petoarekin
        - Neurriak: 1000 x 500 mm
    - Botilategi hoztua, gutxienez 460 litrorako edukierarekin
        - 330 w-ko potentzia
        - Neurriak 1510*545*840
    - Edalontzien esekigailua barra gainean
3. Biltegia eta makina gela
    - Unitatea autonomoa izango da energia eta ura edukitzeko, hau da, energia sorgailu bat edo 7000 W-ko bateriak eduki beharko ditu, bai eta ur garbia eta ur grisak biltegiratzeko deposituak ere, gutxienez 8 ordu iraungo duen ekitaldi baterako baliagarria izan dadin (700 litro inguru depositu bakoitzak)
    - Unitatea prestatuta egongo da modu eroso eta seguruan (lotze sistemekin) gutxienez 4.500 kg karga eraman ahal izateko, hala nola edarien eta elikagaien kutxak, publizitate materiala, kanpoaldean jartzeko altzariak, etab.
4. Komun bat, elementu guztiekin eta konketarekin.
    - Komona altzairu erdoil-ezinezkoduna edo lozazkoa izango da
    - Komonetako zikinak biltzeko hutsean egindako xurketa sistema bat erabiliko da
    - Komonetako ur zikinak biltzeko deposituak gutxienez 300 litroko edukiera izango du

Makina eta ekipo guztiak instalatzean kontuan hartu beharko da errepidez mugitu eta eramango direla; beraz, behar diren ainguratze mekanismoak eduki beharko dituzte, desplazamenduetan makina eta ekipoek eta unitate mugikorrak ere kalterik edukitzea saihesteko.

5. SEGURTASUN ETA HIGIENE NEURRIAK

Lan espazioaren segurtasun eta higiene neurriek, edozein kasutan, lan arriskuen arloan indarrean dagoen araudia bete behar dute. Unitate mugikorrak honako segurtasun neurri hauek izango ditu gutxienez: su itzalgailua, eta indarrean dagoen legeriaren arabera behar direnak.

Lan espazioaren barruko dezibelioek ez dituzte gainditu behar martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuak, zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuen aurka langileen segurtasuna eta osasuna babesteari buruzkoak, eta lotutako beste edozein araudik ezarritakoak.

Argiztapenari eta ingurumen baldintzei dagokienez, kontuan hartu beharko da apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuak, lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenei buruzkoak, ezarritakoa.

6. MODULUAREN FABRIKAZIOA ETA LEGALIZAZIOA

Esleipendunak modulua eraiki beharko du, eta zerbitzu xehatua emateko behar den ekipamendu guztiaz hornitu, baita behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren elementu eta osagarri guztiez ere. Unitateak ekitaldi publikoetan erabiltzeko behar diren baimen guztiak izango ditu (instalatzaile elektrikoaren ziurtagiria, gas instalatzailearen ziurtagiria, etab.).

Errepidetik zirkulatu ahal izango duen unitate mugikorra izan behar denez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa pasatuta eta onartuta izan beharko du dagokion egunean eta orduan.

Unitate mugikorra erabat funtzionala eta behar diren baimenekin entregatzeko epea SEI (6) ASTEKOA izango da, kontratua sinatzen denetik aurrera.

Osagaiek eta ibilgailu osoak behar bezala homologatuta eta legeztatuta egon beharko dute indarrean dagoen araudiaren arabera, eta esleipendunaren kontura izango dira zerga guztiak eta kudeaketa eta izapidetze gastu guztiak, eta funtzionamendurako behar den dokumentazio justifikagarri guztia aurkeztu beharko da.

Unitate mugikorra esleipendunak biltegiratzeko eta zaintzako bere proposamenean ezarritako egoitzan entregatuko da, eta esleipendunaren kontura izango dira eragiketa gastuak eta puntu horretara eramateko eta han mantentzeko gastuak.

Esleipendunak hauek eman beharko ditu:

• Unitate mugikorraren funtzionamenduaren eta mantentze lanen eskuliburuen bi kopia

• Instalatutako makinen eta ekipoen jarraibideen, mantentze lanen eta bermeen eskuliburuak.

HAZI Fundazioak ahalmena izango du kontratuaren ondorioz entregatu beharreko produktua fabrikatzeko edo egiteko prozesuaren berri izateko eta hura ikuskatzeko, eta agindu ahal izango du -edo berak bere kabuz egin- erabiliko diren materialen analisiak, saiakerak eta probak egiteko, kalitatea kontrolatzeko sistemak ezartzeko eta hitzartutakoa zorrotz betetzeko egokitzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

7. FROGATZEKO FASEA

Fabrikazioaren eta entregaren ondoren, gailua frogatzeko aldia hasiko da. Gutxienez ASTE BAT (1) iraungo du, eta, denbora horretan, unitate mugikorraren eta haren ekipoen funtzionamendua azaldu eta frogatuko da.

Esleipendunaren kontura izango dira frogatze aldiko operazio eta mantentze lanen gastuak. Funtzionatu egiten duela eta zerbitzuaren beharrei kalitate eta eraginkortasun irizpideekin erantzuteko gai dela ebaluatzeko, Frogarako Eszenatoki bat ezarri eta abian jarriko da zehazteke dagoen EAEko eremu geografiko batean. HAZI Fundazioak esleipendunari gutxienez ASTE BATEKO (1) aurrerapenarekin jakinaraziko dizkio frogatze fase hori zer egunetan eta zer leku geografiko zehatzean egingo den.

8. INGURUMEN BALDINTZAK

Esleipendunak adierazten du badakiela berak kontratu honen babesean garatutako jardueretan aplikatzekoak izan daitezkeen ingurumen arloko lege betebeharren berri, eta konpromisoa hartzen du ingurumen arloan aplikatu behar zaizkion lege baldintza eta eskakizun guztiak betetzeko.

Era berean, makina eta ibilgailuentzat, esleipendunak adierazten du ez dituela errekuntza erregulatzeko elementuak aldatu gas igorpenak aldatu ahal izateko, eta bere makinek baimendutako emisio mailak betetzen dituztela frogatu ahal izango du, baimendutako kontrol

erakunde batek (KEB) egindako gas igorpenen analisiaren bidez, HAZI Fundazioak hala eskatzen badu.

Esleipendunak, egin beharreko jarduerari dagokionez eragiten dion araudiaren arabera, adierazten du lehengaien kontsumoa murriztuko duela eta soilik behar-beharrezkoak direnak erabiliko dituela, lehengai horien jatorri diren ekosistema naturalen iraunkortasuna arriskuan ez jartzeko.

9. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

2. gutun azalean, enpresa lizitatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

9.1. Eskainitako unitate mugikorra deskribatzen duen memoria, gutxieneko eduki honekin:

• Bide segurtasunaren, garraioaren eta higienerako arau espezifikoen arloan beteko duen arau esparrua.

• Unitate mugikorraren planoak eta deskribapen fisikoa.

• Deskribapen funtzionala eta fluxu diagramak, lanaren antolaketa eta bere funtzionamendurako beharrezkoak diren giza baliabideen balorazioa.

• Unitate mugikorraren makina eta ekipamenduen deskribapena

• Unitate mugikorraren barne eta kanpo irudia diseinatzeko proposamena

Esleipendunak proiektu tekniko bat aurkeztuko du, paperaren gainean eta euskarri informatizatuan, 2 dimentsiotan, eta, gutxienez, honako atal hauek jaso beharko ditu:

- Unitate mugikorrak betetzen duen arau esparrua
- Erregistroko eta homologazioko dokumentazioa.
- Diseinuak dagozkion araudi eta homologazio eskakizunak bete beharko ditu bide segurtasunaren, garraioaren eta elikagaien higiene arau espezifikoen arloan.
- Unitate mugikorraren deskribapen fisikoa
    - Neurriak
    - Materialen eta ekipamenduen ezaugarriak. Esleitu ondoren, instalatutako ekipoen materialen ezaugarrien eta prestazioen fitxa teknikoak emango dira.
    - Elektrizitate eta ur premien eta kontsumoen deskribapena, eta hondakin eta azpiproduktuen sorreraren bolumenaren balorazioa, erdi mailako erabilera funtzionala kontuan hartuta.
- Unitate mugikorraren deskribapen funtzionala
    - Deskribapena eta fluxu diagrama
    - Lanaren antolamenduaren deskribapena eta funtzionatzeko behar diren giza baliabideen balorazioa
- Muntaketa planoak eta eskema teknikoak
- Unitate mugikorraren barne eta kanpo irudia diseinatzeko proposamenaren irudiak
- Larrialdietan eta/edo premiazko ebakuazioetan jarduteko protokoloa.
- Eskatutako zehaztapen teknikoei egindako hobekuntza posibleak (komun osagarria, barra osagarria, dekorazio argiztapenak, barrako itxituren elektrifikazioa edo toldoen hedapena,...).

Deskribapeneko memoriak 20 folio edukiko ditu gehienez ere, alde batetik idatzita, Arial 11 letra iturri eta tamainarekin eta 1,5eko lerroen arteko espazioarekin, eta .docx edo .odt formatu editagarrian aurkeztuko da. Orrialdeak zenbakituta egongo dira eta edukia agiri honetan ezartzen diren baldintzetara egokitzeaz gain, aurrez aipatutako atal bakoitza nahitaez deskribatu beharko du.

9.2. Modulua biltegiratzeko lekuaren ezaugarriekin eta eskainitako mugikortasun zerbitzuaren ezaugarriekin lotutako memoria deskribatzailea, gutxieneko eduki hauekin:

- Biltegiratzeko betekizunak

Aurretik adierazi den bezala, moduluaren zaintza Hazi Fundazioak Arkautin (Granja Eredua, z/g, 01192 Arkauti, Araba) edo Abadiñon (Muntsaratz dorrea, Muntsaratz 17A, 48220 Abadiño) dituen egoitzetako batetik 50 Km edo distantzia txikiagoko erradioan egin beharko da, hornituko den modulurako hornitze lanik, egokitzapenik, dekoraziorik, ekipamendurik edo beste edozein lan egiteko bertara joan behar duten Hazi Fundazioko langileek ondo iritsiko direla bermatzeko. Justifikatu beharreko betekizunak:

- Biltegiratzeko espazioaren kokapena
- Biltegiaren banaketa planoa, modulua uzteko erabiliko den espazioa zehaztuta
- Espazioa araudira egokitzearen justifikazioa eta jarduera gauzatzeko behar diren udal ziurtagiriak
- Biltegiratzeko baldintzak (sarrerak eta irteerak, modulurako dagoen espazioa, altuera, instalazioak, ekipamendua, segurtasun elementuak, etab.)
- Edukitzailearen gaineko Erantzukizun Aseguruaren kopia, moduluaren balio osoaren gaineko kalteak estaltzeko gaitasunarekin

- Mugikortasun zerbitzuaren betekizunak

Zerbitzuaren barruan unitatearen mugikortasuna sartzen da, hau da, modulu funtzionala biltegiratzeko instalaziotik bere zeregina garatuko duen tokiraino eramatea eta handik biltegira bueltatzea, baita modulua in situ muntatu eta zabaltzeko lanak eta ondoren modulua garbitzea eta funtzionatzeko behar dituen kontsumigarriak berritzea ere. Zerbitzua egun berean eman daiteke edo muntatzen denetik desmuntatzen denera arte egun bat edo batzuk utzi ahal izango da, denbora tarte horretan gidari-muntatzailearen presentzia beharrezko ez dela jotzen bada; halere, gidari-muntatzailea erraz aurkitzeko moduan egon beharko da modulu funtzionalaren erabiltzaileentzat. Justifikatu beharreko betekizunak:

- Gidari-muntatzaile lanak egiteko langileen curriculuma
- Jarduera behar bezala gauzatzeko HAZI Fundazioaren eta esleipendunaren artean garatu beharreko lan sistematikaren deskribapena (harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa, lekualdatze eskaeren aurrerapena, HAZIko langileak modulura sartzeko moduak, langile arduradunak, biltegiratzeko lekura sartzeko segurtasun neurriak,...)
- Modulua mugitzeko behar den traktore elementuaren eskuragarritasunaren eta haren ezaugarrien justifikazioa.